



BARREN
TOKIKOM

Ezinik ez

Markel Kerexeta



asisko

SUGARRAREN MENDI

SORGIN
EHIZA
EUSKAL
HERRIAN



LIBURUAREN AURKEZPENA

Asisko Urmeneta eta Helena Xurio

Ekainak 24, osteguna

Aita Agirre Kulturguneko aretoan, 19:00etan

GONBIDAPENA eskatu behar da ELGOIBARKO IZARRA elkartearen, aforoa mugatua izango da-eta

*“Duela 410 urte burutu zen Logroñoko autofedea,
zeinean erre egin baitzuten hainbat euskaldun, sorgintzat akusaturik.*

Zerk eraman zituen jurista

eta teologo ilustratu haiek gure arbasoak sorginak zirela aitorraraztera?”



SARA IRIONDO OTAÑO

Gizarte hezitzailea



Eskerrak

bakarrizketa sasijakintsua hasi zenuen nire arreta lortzeko asmoarekin. Nire isiltasuna entzunda, konfiantzazko giroa sortzeko saiakera faltsu bat egin zenuen. Tentsioaz jabetu zinen, baina boteretsu sentitzen jarraitu nahi zenuen. Bazenekien nire beldurretan harrapatuta nengoela eta horrek garaipen sentsazioa ematen zizun. Burua altxatu zenuen, bularraldea zabaldu eta barre egin. Etxerako modukoa nintzela esan ostean, jatorkeriaz agurtu nahi izan ninduzun eta ea eskua behintzat emango ote nizun galdetu. Gorputza atzera bota nuela ikusi zenuen, baina zalantzati luzatzen ari nintzen besoari erreparatzea erakargarriagoa egin zitzaizun, zure desioa uzteak deserosot-

suna lekuz aldatuko bailuke. Eskua estu heldu, biratu eta muak! Musu bat eman zenidan *caballerosidadez*, horretarako eskubide osoa zenuela sinistuta. Alde egin zenuen eta nik pentsatu nuen: eskerrak ez nauen bortxatu.

Nire espazio intimoa inbaditu zenuenean, mugak jartzen jakin behar nuela leporatu nion nire buruari. Zure jarrera biolentoaren aurrean, alde egiteko ausardia falta zitzaidalda uste izan nuen. Erasoarekin jarraitu ez zenuelako eskerrak eman nituen.

Fuerte da bizirik jarraitzen dudala ospatzea. Nire burua etengabe nola defendatu lantzen ari naizela konturatu naiz, erasotzeak zuri ematen ez dizun beldurra ematen didalako.

luntzeaz gozaten ari nintzela, ondolik pasatu zinen eta emakume ederra nintzela iruditu zitzaizun. Begi bistakoa zitzaizun zu baino dezente gazteagoa nintzela. Bakarrik nengoela ziurtatu zenuen. Elkar topatzea kasualitate magiko bat zela esan zenidan, nahiz eta nigana hurbiltzea zuk zeuk hartutako erabaki bat izan zela jakin. Begi oso politak nituela esan zenidan, ez baitzinen nire alderdi fisikotik haratago ikusteko gai. Gehiago hurbildu eta

“Tentsioaz jabetu zinen, baina boteretsu sentitzen jarraitu nahi zenuen. Bazenekien nire beldurretan harrapatuta nengoela eta horrek garaipen sentsazioa ematen zizun”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Mila-mila esker, bihotzez, Mendaroko Ospitaleko larrialdietako lantaldeari, zapatuan eman ziguten erantzunagatik. Goizeko 9:00etan deitu genuen bihotzeko posible baten aurrean, eta berehala erantzun ziguten, azkar eta ondo. Berriz diot, eskerrik asko lantalde osoari, harrerakoei, erizainei, medikuei... denak bikain portatu zirelako.

J.A.R.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuta egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutizik argitaratuko.



Begoña Gil Altuna

2021eko ekainaren 9an hil zen, 60 urte zituela.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.**

Egotoki Elkarte



Begoña Gil Altuna

**Gure oroimenean bizi zaren artean,
betiko izango zara gure bihotzean.**

Jo ta apurtu kuadrilla



Alejandro Alvarez Galdos

2021eko ekainaren 16an hil zen, 81 urte zituela.
Hileta elizkizuna gaur, ekainaren 18an, izango da,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Irailean zabalduko dute Olaizagako igerileku berria


Olaizaga kiroldegiko igerileku berriaren azken lanak uztailean amaituko dituztela aurreratu du Elgoibarko Udalak. Abuztuan igerilekua bete eta probak egingo dituzte, eta ondo bidean, irailean zabalduko dute igerilekua. Guztira 3.221.594,29 euroko inbertsioa egin du Udalak, BEZ kanpo. Igerileku berriak, 25m. luze, 16.50m. zabal eta 8 kale izango ditu. Igerilekuaz gain, egungo aldagelak berritu eta beste bi aldagela, aldagela egokituak, komunak eta botikina ere egin dituzte. Barne instalazioekin batera, ingurua ere berrantolatu dute, igerilekuaren zabalpen berriaren teiltuan aparkaleku berri bat eginez: 42 plaza izango ditu, horietako bi ezgaitasuna duten pertsonentzat. Ane Beitia alkateak esan du "anbizio handiko" proiektua izan dela hau: "Herriko kirol eskaintza hobetzeko igerileku berria eraiki dugu, egungo eskarira eta irisgarritasun, kirol, genero eta abarretako esparruetan dauden arauetara egokitutakoa, Elgoibarrek eta elgoibartarrek kalitatezko azpiegiturak izan ditzaten eta herritar orok kirola egiteko aukera bermatua izan dezan". Elgoibarren 18 kirol elkarte daude, eta 300 ikasle baino gehiago dituzte inskribatuta. Udal instalazioek 3.500 pertsona abonatu baino gehiago dituzte eta urteko 100.000 erabilpen baino gehiago.



Aita Agirreko Kultur Kafearen kudeaketa lizitaziora atera du Elgoibarko Udalak

Aita Agirre Kultur Kafea kudeatzeko eta ustiatzeko lizitazioa argitaratu du Elgoibarko Udalak, aurreko esleipendunak maiatzaren 21ean ustiapen-kontratua etetea erabaki ondoren. Proposamenak Herritarren Arretarako Bulegoan aurkeztu behar dira (Santa Ana, 2), astelehenetik barikura eta 7:30etik 14:00etara, uztailearen 1erako. Prestazioa gauzatzeko epea bi urtekoa izango da, eta beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da. Urteko lizitazio-tasa minimoa 6.000 eurokoa da, BEZik gabe. Enpresa esleipendunak, besteak beste, hilean kontzertu bat eta bestelako ikuskizun, ikastaro, tailer edo kultur jardueraren bat antolatu beharko ditu gutxienez, eta euskara irizpideak bete beharko ditu. Horrez gain, zerbitzuaren funtzionamendurako artikulua erosi eta saltzeaz arduratu beharko du, eta produktu horien kalitatearen ardura hartu beharko du. Taberna baten berezko zerbitzuak garatu ahal izango ditu edari alkoholodunak eta alkoholik gabekoak zerbitzatzuz, kafeak eta ordezkoak, pintxoak, kazolatxoak, menuak... Erabat debekatuta egongo da tabakoa eta legez kanpoko produktuak saltzea, ez zuzenean, ez zeharka. Internet, telefonía, argia, gasa, ura eta abarren gastuak esleipendunak ordaindu beharko ditu. Udalak jakinarazi du uda honetan bertan jarri nahi duela martxan berriro Kultur Kafea.

Grindel enpresak 50 urte bete ditu eta agintarien bisita jaso du



Engranajes Grindel enpresak 50 urte bete ditu, eta, urteurrenaren harira, agintarien bisita jaso zuten astelehenean: Jone Nolte, ASLEko zuzendari kudeatzailea; Jabier Larrañaga Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa inguruneko diputatua; Markel Olano ahdun nagusia eta Ane Beitia Elgoibarko alkateak parte hartu zuten bisitan. Makina erremintako sektoreko enpresa da Grindel, engranaje zilindrikoak eta doitasun handiko ardatz il-daskatuak fabrikatzen espezialista. Lan-sozietate bat da Grindel eta kapital sozialaren gehiengoa langileen jabetzakoa da. Kanpoko merkatuan %70 fakturatzen du eta presentzia handia du 15 herrialde baino gehiagotan. Grindeleko zuzendari kudeatzaileak eman zizkien azalpenak agintariei, Iñaki Solabarrietak, eta hark esan zien azkeneko bost urtean hazkunde handia izan duela enpresak, batez ere kanpo-merkatuaren eraginez, eta %40 esportatuzetik %70 esportatzera igaro direla. 75 langileko plantilarekin, urtean bederatzi milioi euro inguru fakturatzen ditu.

Paco Egea hil zen barikuan, Jaurlaritzako sailburu sozialista eta Txillarreko negoziazioen sustatzaileetako bat izan zena

Barikuan hil zen Paco Egea (Elgoibar, 1950-2021), 70 urte zituela. PSE-EEko kidea zela, Gipuzkoako Foru Aldundian Ekonomia zuzendaria izan zen, eta Jose Antonio Ardanza lehendakaria zela, 1.997. urtean, Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzak kontseilari izendatu zuten. Lizarra-Garaziko Ituna egin zenean, sailburu sozialistek dimisioa eman zuten, eta Egeak politika utzi zuen orduan, enpresa pribatuan hasteko. Ingeniaritza Industrialak ikasketak zituen eginda eta hainbat enpresatan ibili zen lanean: Mondragon Taldean, Alfa eta FEVE Espainiako Trenbideen Enpresa Publikoan. Kutxan, Sprin eta EuskoTrenen ere kontseilari izan zen, era berean. Ezaguna egin zen, era berean, Egeak Txillarren bakea egosten egindako ahalegina ere. Negoziazio saio haien sustatzaileetako bat izan zen Egea, Arnaldo Otegiarekin, Jesus Egigurenekin eta Fernando Barrenarekin batera. Txillarreko Pello Rubiok 2012an BARRENI emandako elkarrizketan honela zioen: "Paco Egeak berak proposatu zigun 2000. urte amaiera aldera, eta Arnaldok gustura hartu zuen. Eta halaxe 2001. urte hasieran hasi zen etortzen Jesus Egigurenekin". Barikuan, hil zela jakin bezain laster, dolumin mezuak zabaltzen zituzten Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak eta Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak. "Elkarrizketaren eta bakearen aldeko apustu zintzoa egin zuen lehena izan zen. Herri honen historiaren parte bat berak hasi zuen Txillarren. Nire doluminak sentitartekoei, lagunei eta alderdiko kideei", zabaldu zuen Otegi sare sozialen bidez. Eta honako beste hau zabaldu zuen Mendiak: "Beti adiskidetzaren alde egin zuen zerbitzari publikoa izan zen. Gobernutik eta diskreziotik. Eskerrik asko. Agur eta ohore".



Bi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak barikuan Elgoibarren, marihuana plantazio bati lotuta

Osasun publikoaren aurkako delituta leporatuta bi lagun atxilotu zituen joan zen barikuan Ertzaintzak Elgoibarko baserri batean. Marihuana plantazio batekin lotu zituzten. Ertzaintzatik adierazi zutenenez, 80 bat marihuana landare aurkitu zituzten lorain, bai eta landareak barruan hazteko instalazio oso bat ere. Horrez gainera, beste gela batean, moztu berriak zituzten 300 marihuana-landare atzeman zituzten. "Goiko aldean marihuana xehatua zuten hainbat plastikozko poltsa zeuden, bai eta substantzia marroi prentsatu baten tableta batzuk (haxixa) eta doitasun-balantza bat ere". Ertzaintzaren arabera, bariku arratsaldean Eibarko ertzain etxeko landa patruila bat Elgoibarko baserri batera hurbildu zen arratsaldeko bos-tak aldera, eginbide judizialekin zerikusia zuten kudeaketa batzuk egitera. Poliziak baserrian zegoen bikote batekin hizketan ari zirela, baserri barrutik marihuana-usain handia zetorrela iruditu zitzaientzen agenteei, eta barrura sartzeko baimena eskatu zioten bikoteari. Hala, barrualdea mihatu eta atzemandakoak atzeman ostean, bi pertsonak atxilotu zituzten osasun publikoaren aurkako delituta leporatuta. Eta zapatuan bertan, bi atxilotuak Eibarko Guardiako Epaitegiaren eskuetan jarri zituzten.

Zabalik daude Mendaron Andoneikuako ur txorrotak

Barikuan zabaldu zituzten Mendaron Andoneikua kirolguneko ur txorrotak. Udaletik jakinarazi dute 10:00etatik 20:00etara egongo direla ur txorrotak martxan. Ur txorrotak zabaltzearekin batera, inguruko mahaiak eta eserlekuak ere txukundu dituzte.



Emakumeei ahalik eta min handiena egiteko haien seme-alaben kontra egitea “ankerkeriarik handiena” dela salatu dute Elgoibarren



Olivia eta Anna Gimeno Zimmermann Tenerifeko ahizpen bahiketa eta hilketen harira elkarretaratzea deitu zuten Eudelek astelehenerako, emakumeen eta haien seme-alaben kontrako indarkeria salatzen. Apirilaren 27tik desagertuta zeuden Olivia eta Anna, 6 urte eta 14 hilabeteko ahizpak, baina joan zen eguenean Olivieren hilotza aurkitu zuten Guardia Zibilak itsasoan, poltsa batean sartuta, aitarien itsasontziko aingurari lotuta, eta haren ahizparen bila ari dira orain, baina bizirik topatzeko itxaropen handirik gabe. Eta indarkeria bikarioaren “ankerkeriarik handiena” salatzen elkartu ziren dozenaka lagun astelehenean Kalegoen plazan. Tratu txarrak ematen dituztenek euren emaztearen edo emazte ohien seme-alabei edo haien gertuko pertsona ahulenei muturreko mina eragiteko erabiltzeko duten moduari esaten zaio indarkeria bikarioa. Eudeletik salatu dute emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dela emakumeen kontrako indarkeria eta ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina. Genero Indarkeriaren Legeak eguneraketa handiagoa behar duela ere eskatu dute kalean, bai eta Tenerifen, aitak, Tomas Gimeno, hildako Olivia eta Anna haurrak, genero indarkeriaren biktima gisa aitortzeko.

Etxebizitzetan hobekuntza lanak egiteko dirulaguntzak emango ditu Mendaroko Udalak, EH Bilduk proposatuta

Mendaroko Udalak dirulaguntzak emango ditu etxebizitzetan hobekuntza lanak egiteko. Maiatzeko udal plenoan onartu zuten, hain zuzen ere, dirulaguntza lerro hori bideratzeko ordenantza, eta dirulaguntzen deialdia hurrengo hilabeteetan egitea aurreikusten da. Joan zen eguenean argitaratu zuten ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 30 egunez jendearean egongo da, baina alegaziorik ezean –normalena dena bide batez esanda, ahobatez onartu zituztelako eta ez doalako inoren interesen kontra–, automatikoki onartuko da. Dirulaguntza horien bidez etxebizitzetan egin daitezkeen hobekuntza desberdinak lagunduko dituzte eta 2021. urtean egindako lanak ez ezik, 2020. urtean egindakoak ere lagunduko dituzte diruz. Hauxe dira, zehatzago esanda, diruz lagunduko dituzten lanak: Irisgarritasuna hobetzeko obrak (igogailuak, arrapalak...); fatxadak berritzea; Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak (ITE) eskatutako lanak; efizientzia energetikoa hobetzeko lanak (isolamendu termikoak...); Autokontsumorako Energia Elektriko Fotovoltaikoko Instalazioak; Etxebizitza egokitzea mugikortasun mugatua edo zentzumenezko desgaitasuna dutenentzat; kanpo arotzeria ordezkatzeko (ateak, leihoak...) eta etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko egokitzapen lanak.

Udako ordutegia izango du Mendaroko Goñati gimnasioak

Uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango du Goñati gimnasioak. Hala, uztailaren 1etik 23ra, astegunetan 9:00etatik 12:00etara irekiko dute goizez, eta 17:00etatik 21:00etara, arratsaldez. Abuztuaren 1etik 13ra eta 23tik 31ra, berriz, ordutegi berezia izango du, 8:00etatik 14:00ak artekoa. Hilaren 24tik 31ra eta abuztuaren 14tik 22ra, berriz, itxita egongo da

1.060 kafe-kapsula bildu dituzte hiru hilabeteetan

Kafe-kapsulen erabilerak gora egin zuela ikusita, martxoaren 5ean haiek biltzeko bidea hasi zuten Mankomunitateak, Nestle konpainiarekin sinatutako hitzarmenari esker. Eskualdeko hamabi mini-garbigailutan kafe-kapsulak batzeko zerbitzua jarri zuten martxan, eta hiru hilabeteetan 1.060 kafe kapsula bildu zituzten. Nestlérekin sinatutako hitzarmenak lau urterako iraupena duela zehaztu dute.



Basatiak taldearen argazkia. Eskumatik hasita, laugarrena da Markel Kerexeta.

Kemenak ez du mugarik

Errugbian jokatzen du Markel Kerexetak (Elgoibar, 2000), gurpildun aulkira egokitutako errugbian. Garun paralisia dauka jaiotzetik, eta ondorioz zailtasunak dauzka mugitzeko eta hitz egiteko, baina hala ere, ez da geldirik egoteko mutila. Betidanik gustatu izan zaio kirola, taldean jokatzeke kirola bereziki, eta hainbat kirol probatu ostean, duela hiru urte iritsi zen Gasteizko Zuzenak klubera. Errugbi egokituko Basatiak taldean jokatzen du, eta gainera, taldeko kapitaina da. Espainiako selekzioan jokatzea du amets.

- AINHOA ANDONEGI -

Xaketik ezagutuko dute askok Markel Kerexeta Elgoibarren, izan ere, xakeari lotutako albiste askotako protagonista izan baita ume-umetatik. 8 urterekin hasi zen xakean jokatzen aitarekin, eta gerora Zubi Ondo xake taldean jaso zituen eskolak Mikel Leonen eskutik. Berehala hasi zen xakean lehiatzen, eta gaur gaurkoz esan dezake bere irakaslea izan zena mendean hartzeko gai ere izan dela. Iriondo tabernako xake txapelketako partida batean irabazi zion Kerexetak Mikel Leoni, eta gaur egun, Zubi Ondo klubeko lehen taldean daude biak. Xakerako zaletasun handia dauka, baina azken hiru urteotan, beste zaletasun bat ere badu: gurpildun aulkian jokatzen den errugbia.

Markel Kerexetak betidanik izan du gustuko kirola, eta umetatik praktikatu izan ditu kirol desberdinak. Eskola Kirolean jardun zuen lehenengo LH6ra arte, eta gerora, futbolekin ere

ibili zen bizpahiru urtez C.D. Elgoibarren. Talde kirola gustatzen zaio bereziki, taldean jokatzea, eta horretarako, egokitutako kirol modalitatearen baten bila hasi ziren. Inguruko herrietan jardun zuten galdezka, baina hemen bueltan ez zuten ezer aurkitu. Gimnasioak aurkitu zituzten bereziki kirol egokitua eskaintzen zutenak, baina bakarka edo entrenatzaile batekin jarduteko aukera bakarrik eskaintzen zuten. Eta hori ez zen nahi zuena. Egun batean, egunkarian irakurri zuten Gasteizen gurpildun aulkian jokatzen den saskibaloia partida bat zegoela, eta ikustera joan ziren. Partidako antolatzaileak ere jende bila zebiltzan, eta probatzera animatu zuten. Hiru urtez ibili zen saskibaloian, baina taldea utzi behar izan zuen, ez zeukalako taldearen mailari eusteko gaitasun nahikorik. Saskibaloian jokatzeke gerritik gorako gorputz-adarretan minusbaliarik ez izatea garrantzitsua da, eta ez da hori



Markelek behar du kirola egitea, eta gurpil gaineko errugbian aurkitu du bere lekua. Kirolak ondo egiten dio, bai fisikoki eta baita mentalki ere

Markelen kasua. Saskibaloian jokatzen dutenak normalean gerritik behera izaten dituzte arazoak, baina berak eskuetan ere baditu. Markelek bezala, beste taldekide batzuek ere arazo berbera zuten, eta horrela bururatu zitzairen saskibaloiairen ordezkari errugbi taldea sortzea.

Gurpildun aulkian jokatzen den errugbia Kanadan asmatu zuten 1997. urtean, eta lau hamarkada behar izan ditu Euskal Herrira iristeko. 2018an sortu zuen Gasteizko Zuzenak klubak errugbian gurpildun aulkian jokatzen den taldea. Ainhoa Rodriguez da taldeko entrenatzailea. IVEF ikasi zuen eta Zuzenak taldean egin zituen praktikak, gurpil gaineko saskibaloia taldean. Errugbi taldea sortu zutenean eman zioten entrenatzaile izateko aukera, eta halaxe hasi zuten guztien artean abentura berri hau.

Hamahiru jokalarik osatzen dute taldea, eta horietako bat da Markel Kerexeta. Neska zein mutil, denek batera jokatzen dute, baina gehienak gizonezkoak dira; emakumezko bakarra dute taldean. Jokalariak gutxienez hiru gorputz-adar eduki behar dituzte ezinduta, hau da, bi hanka eta beso bat edo bi beso eta hanka bat. Markelek baldintza hori betetzen zuten, eta hasieratik sartu zen taldean. Eta gaur egun, harro eta pozik dio, haxe dela bere kirola.

Basatiak izena dauka taldeak. 17 urterekin hasi zen taldean, orain dela hiru urte. Espainia mailan lehiatzen dira, Zaragoza, Madril, Sevilla, Bartzelona, Toledo eta Valentziako taldeen kontra. Zonaldeko banatzen dute liga, bidaiak ez daitezkeen horren luzeak izan, eta iparraldeko ligan jokatzen dute Zuzenak klubeko *basatiek*.

Aurten partida bakarra irabazi dute, Toledoren kontra, eta zazpitik laugarren amaitu dute sailkapenean. Asteazkenetik joaten da Markel Gasteizera entrenatzera, eta horrez gain, asteburuan partidak jokatzen dituzte. Jokalari gehienak ez dira Gasteiz bertakoak, eta askori gogorra egiten zaie entrenamendu eta partidetakoa dinamizari eustea. Ez da hori Markelen kasua. Fin-fin betetzen dute klubarekin dituen konpromisoak. Ilusioa eta kemia jarri dute taldean, eta oso pozik dihardu. Bere ahaleginak eman dute fruituak, eta une honetan bera da taldeko kapitaina. Horrez gain, Espainiako selekzioaren deia ere jaso du, eta birritan joan da selekzioarekin entrena-

tzera. Oraindik ez du debuta egin, eta hori da bere ametsa, selekzioarekin debuta egitea. Olinpiar jokoa ere begiz jota dute: momentuz gurpil gaineko errugbia ez da kirol olinpikoa, baina badauka egunen batean izango den itzaropena. Pandemiak

ere eragin die, eta ia urtebetez egon dira txapelketarik gabe eta entrenatu ezinda. Bere kabuz saiatu da Markel ariketak egiten, baina ez da gauza bera, eta forma galdu duela aitortu du. Orain oporretan daude, baina irailetik aurrera gogor ekingo dio berriz lanari. Pandemiaren alde ona ere aprobetxatu du, baina, Markelek, eta geldialdia ondo etorri zaio ikasketak amaitzeko. Donostian egin du bi urteko Administrazio moduloa, eta lan praktikak Elgoibarko Kalman enpresan egin ditu. Uneren batean zailtasunak izan zituen ikasketak errugbiarekin uztartzeko, baina pandemiaren etenari esker, ikasketei eskaintzeko denbora gehiago eduki du.

Kirolak ondo egiten dio, bai fisikoki eta baita mentalki ere, sasoian egoten laguntzen dio. Markelek behar du kirola egitea, eta gurpil gaineko errugbian aurkitu du bere lekua. Fisikoaz gain, gurpil gaineko errugbiak teknika eta taktika eskatzen ditu, eta garrantzitsua da jokaldiak ondo irudikatzea. Markelek hori oso ondo egiten du. Xakean jokaldiak ikusteko daukan abilezia bera erabiltzen du errugbiko jokaldiak ere bere buruan ikusteko, eta horrek abantaila ematen dio. Indarra bezain garrantzitsua da burua gurpil gaineko errugbian jokatzen, eta Markelek argi dauka burua. Arbel batean marrazten dizkie entrenatzaileak jokaldiak eta go-goan gordetzen dituzte jokalariek, kantxan aplikatzeko.



Markel Kerexeta, 3 zenbakiarekin, jokaldi batean.



*Elgoibarko eta ingurukoei
deia egin nahi die Markelek,
gurpil gaineko errugbian
jokatzeko. Jendea behar dute,
eta behintzat probatzera
animatu nahi ditu*

JOKO-ARAUAK

Beste edozein kiroletan bezala, gurpil gaineko errugbian ere arau pila bat dituzte. Taldea lau lagunek osatzen dute. Taldekide bakoitzak puntuazio bat dauka, bere minusbaliaren arabera. Minusbalia gutxien dutenek izaten dute puntuazio altuena, eta horiek normalean, erasoan jokatzen dute. 3,5ekoa da puntuazio altuena eta 0,5ekoa apalena. Markelek 1,5eko puntuazioa dauka, eta defentsan jokatzen du. Emakumeek eta 18 urtetik beherakoek 0,5 puntu gutxiago izaten dituzte. Jokalari bakoitzaren puntuazioa kontuan hartuta osatu behar da taldea, gehienez ere 8 puntukoa.

Baloia biribila da, volleyball-ean erabiltzen denaren modukoa. Gainean eramaten dute, kantzaren alde batetik bestera eta bi konoren artean sartu behar da gola. Baloia ezin dute hamar segundu baino gehiago eduki mantalean, eta derri gorrezkoa da boteak ematea ere. kontaktu fisikoa debekata dago, baina aukiek elkarren artean txoke egin dezakete. Jokalariak bi aukera dituzte babes moduko bat eskatzeko, gainerako jokalariek inguratu eta itota sentitzen badira, eta entrenatzaileak ere eskatu dezake partida gelditzea. Partida bakoitzak zortzi minutuko lau zati izaten ditu.

Kirol gogorra da. Eskuak babesten dituzte, gurpilei bultzatzean ez mintzeko, eta besoak eta hankak babestekoak ere

janzten dituzte. "Kirol ikusgarria da, ikusteko oso dibertigarria. Ikustekoa da ia mugikortasunik ez dugun pertsonak nola moldatzen garen!". Markel gutura dago bere errendimenduarekin, eta minutu asko jokatzen dituela esan du. Hemen ere, gainerako kiroletan bezala, taldekideekin lehiatu behar da, postua lortzeko.

Bi aulki mota daude, erasokoak eta defentsakoak, baina biak oso garestiak. 3.000 eurotik gora balio dute aukiek, eta oro har, material guztia da oso garestia. Hasieran saski-baloiko aukiekin jokatzen hasi ziren, baina ez zuten balio, errugbirako auki sendoagoak behar direlako. Mantenua ere behar dute, aukiek asko sufritzen dutelako partidetan, eta beti prest edukitzea garrantzitsua delako. Finantziarioa behar du kirol egokituak, eta babesle bila ibiltzen dira han eta hemen. Alde horretatik eskerrak eman dizkio Danobati, Zuzenak klubari dirulaguntzak eman dizkiolako. Zuzenak klubak lan handia egiten du kirol egokitu bultzatzeko, eta minusbaliak dituzten pertsonen laguntzeko. Pozik dago Markel Zuzenak klubean, eta ahalegin betean dihardu. Zuzenak klubeko familia direla dio, denak elkar laguntzen dira, denek dituztelako behar antzerakoak. Elgoibarko eta ingurukoei deia egin nahi die Markelek, gurpildun errugbian jokatzeko. Jendea behar dute taldea mantentzeko, eta behintzat probatzera joateko animatu nahi ditu.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Hilerrri pareko semaforoan bi aldiz egon behar izaten da zain semaforoa gorri egoten delako: "Argazkian ikusten den eskumako erreilean semaforoa gorri jarri beharrean, laranja egon beharko litzateke, autoek aurrera egin ahal izateko. Bestela, lehenengo semaforo horretan zain egon behar izaten dugu gidariok, eta gero, Olasoko industrialdera sartu nahi duenak, berriz ere semaforoa gorri izaten du. Jakina da errotanda biribilek hobeto funtzionatzen dutela semaforo bidezkoek baino, baina ezin bada errotanda itxi, gutxienez, trafikoa errazteko moduan jarri ditzatela semaforoak".




Herriarrek eta Patronatuko bazkideek lehentasuna izan beharko lukete Mintxetako igerilekuan: "Aurten, Mintxetako igerilekuan, COVID-19aren inguruko araudia aldatu dute eta kalte egin digu elgoibartarroi. Aurreko urtean edukiera mila erabiltzailekoa zen eta behin ere gainditu ez zen arren, aurten edukiera handitu egin dute. Aurten, baina, kanpoko jendea eguneko sarrera erositatu daitezke. Iaz ez zegoen aukera hori eta kanpotarrak bazkide izan behar ziren edo 10eko bonoa erosi behar zuten. Joan zen asteburuan jende asko etorri zen inguruko herrietatik, eta izugarritzko ilarak sortu ziren igerileku txikian zein handian sartzeko, sorosleak edukiera kontrolatzen ibili zirelako. Ez zen batere atsegina izan egiten zuen beroarekin uretara sartzeko ilaran zain egon behar izana, eta gainera, kontraesanekoa ere bada, izan ere, COVID-19aren arriskua murrizteko aforo kontrola egiten da, musukoa jantzi behar da berdegunean zehar ibiltzeko, baina gero ilaratan izugarritzko jende pilaketak sortzen dira, eta denak musukorik gabe. Domeka arratsaldean igerilekurako sarrera itxi egin behar izan zuten eta

jendea kanpoan geratu behar izan zen zain. Herriar eta Kirol Patronatuko bazkide garen aldetik, kanpotarrekiko abantailaren bat izan beharko genukeela iruditzen zaigu, kirol instalazioak gure ekarpenei esker mantentzen direlako batik bat. Aurreko urtean primeran ibili ginen uda osoan, pilaketarik gabe eta arazorik gabe, baina joan zen asteburuan herriar askok haserre amaitu genuen. Dagokionari eskaera egin nahi diogu neurri berriak hartu eta gutxienez aurreko urteko egoerara bueltatu ahal izateko. Uda hasi baino ez da egin, eta neurriak aldatzeko garaiz gaude".

Kirol Patronatura deitu dugu eta han erantzun digute herriarrek kexa horretan ageri den informazio guztia ez dela zuzena: "Aurten edukiera handitu badugu ere, orain arte ez da iazko kopuru muga gainditu. Zapatuan 1.300 pertsona egon ziren egun osoan eta domekan, 1.600, baina une berean mila pertsonako edukiera (iazko muga) ez zen gainditu. Abonuei dagokienez, iaz bezala kanpokoak ere abonatu daitezke. Askok gainera urte osoko abonua dute eta edonork erosi dezake eguneko sarrera, bai elgoibartarrek eta baita kanpotarrek ere. Aldatu den gauza bakarra da iaz Elgoibartik kanpokoek ezin zutela erosi eguneko sarrerarik, eta aurten bai. Une honetan Kirol Patronatuak 3.700 abonatu ditu eta gehienak elgoibartarrak dira, baina beste asko, beti izan den bezala, inguruko herrietakoak dira. Abonatu hauei guztiei esker, Patronatuaren %60 finantzatzen da, eta guztiek dituzte eskubide berberak, Elgoibarkoak izan edo ez. Pasa den astebukerako moduko jende pilaketak iaz ere izan ziren, erabiltzaileek araudiak barneratu zituzten arte. Patronatuak pertsonal gehiago jarri du, pasa den urtean egin zuen bezala, egun eguzkitsu eta beroetan, berdeguneko partzelak nola erabili azaltzeko eta igerilekuetako aforoak kontrolatzeko".

Zergatik ez dituzte isiltzen parrokiako kanpaiak gauzez?. "Parrokiatik gertu bizi gara, eta gau askotan loak hartu ezinda egoten gara, parrokiako kanpai hotsen ondorioz. Ordu laurdenero jotzen du kanpaiak, eta gauzez traba handia egiten du kanpai hotsak. Tradizioa dela badakigu, baina tradizioak ere aldatu daitezke, eta atsedeneren mesedetan, 00:00etatik 06:00ak arte kanpaiak ixiltzea eskertuko genuke". BARREN astekaria parrokiako arduradunekin jarri da harremanetan, eta esan dute hurrengo zuzendaritzako bileran aztertuko dutela gaia. Ikasturte hasierara arte, baina, ez daukate bilerarik".



“Sorgin ehiza ezin da konkistaren logikatik kanpo ulertu”

Helena Xurio historialaria lagun hartuta, sorgin ehizari buruzko liburua ondu du Asisko Urmenetak: ‘Sugarren mende’. Espainiako Inkisizioak 1482tik 1834ra bitartean iraun zuen, baina liburuan, denbora tarte laburragoan gertatutakoak kontatu dituzte: Nafarroan inkisizioa ezartzea lortu zutenetik Logroñoko autofedeko biktima batzuk kalte ordainak eskatu zituzten artekoak; hau da, 1513tik 1616ra artekoak. Eguenean, hilaren 24an, aurkeztuko dute liburua Elgoibarren, Aita Agirre Kulturguneko aretoan, 19:00etan [Gonbidapenak Elgoibarko Izarran eskatu behar dira].

- AINARA ARGOITIA -

► ASISKO URMENETA ILUSTRATZAILEA

◆ **Asko idatzi da sorgin ehizaz, baina zerbaiten falta igarri duzue zuek liburu hau argitaratzeko, ezta? Non jarri nahi izan duzue argia?**

Liburua prestatzen hasi ginenean, konfiantzazko lagun batek hori bera galdetu zidan: baina, ez al dago dena kontatua dagoeneko?. Ez. Hasteko, ez dago monografia seriorik edo liburu akademikorik euskaraz Euskal Herrian hain larriak izan ziren gertakariez. Bibliografia aunitz bada beste hizkuntzetan, baita frantsesez eta espainolez ere, baina horietan ez da kontatzen Nafarroa Garaian gure arbasoek bizi izan zuten jazarpena, ez haien kontra izan ziren sarekadak ere. Narratiba nazionala falta da. Sorgin ehizaren inguruan sekulako dirutza publiko nahiz pribatuak erabilia egin izan diren film eta erakusketa guztietan euskaldunak zergatik eta zertarako elkartzen ziren azaltzen aritu dira. Baina gure iritziz, egin beharreko galdera beste bat da:

anomalia ez baita elkartzea, inkisidoreak Euskal Herrian izatea baizik.

◆ **Narratiba nazionala falta dela diozu. Nola egin dituzue dokumentazio lanak?**

Bai. Helena Xurio zugarramurdiarra da, Logroñoko autofedean epaituak izan ziren asko bezala, eta harrigarria zitzaien sutara kondenatu zituzten herrikide haiei buruz 400 urtez ezer aipatu ez izana [Zugarramurdik orduan zituen 270 biztanleetatik 32 kondenatu zituzten sutara]. Berak xaxatu ninduen ni. Ohartu ginen ez zela gure historia kontatzen ari eta zerbait egin behar genuela epaitutako gure arbaso haien irudia garbitzeko eta memoria berreskuratzeko. Liburu hau idazteko, hemen, Euskal Herrian, argitaratu den ia dena irakurri dugu, baina baita munduan, Espainiako Inkisizioa jasan duten herrietan, argitaratutako asko ere, eta ikusi dugu oso ezberdin interpretatzen dutela gertaturikoa munduan.



Espainiako Inkisizioa Siziliatik Filipinetaraino hedatu zen, Espainiako monarkiak agintzen zuen leku guztietara zabaldu baitzen, eta 21 auzitegi izan zituen. Kontua da Espainiaren kolonia izan diren herri horiek gehienak liberatu direla, baina gu oraindik ez, eta horietan egin diren doktore tesi eta testu akademikoetan oso bestela kontatzen dela egiaz gertatu zena. Haietan esaten da bazela auzitegi politiko eta polizial bat aritu zena aritu zen bezala disidentzia diziplinatzeke eta ezabatzeko. Leku guztietan kontatzen da hori horrela, hemen izan ezik, hemen ez baikara ausartzen. Hemen, mitologia bat bada gertatutakoaren inguruan. Ni neu ere aurreste batzuekin abiatu nintzen lanketa honetan. Uste nuen apaiz fanatiko batzuk ibili zirela emakumeak ezker-eskuin erretzen, eta ez da hori.

◆ Zer da desikasi beharko genukeena?

Hainbat ikuspuntutatik iker daiteke gaia: sozioekonomia, generoa, erlijioa, politika... Lan hipotesi onartezin bakarra da gure arbasoak sorginak zirela. Eta gurean, ohar etnografiko batzuk eman izan dira, baina ikuspegi integrala falta izan da. Aspaldi hasi ziren Zugarramurdiko herritar batzuk gogoetan. Batetik, kezkatzen zituen nola zabaldu zen mitologia oso bat oinarri historiko handiegirik gabe, eta bestetik, nola ari ginen sortzen beste mitologia bat horren inguruan, erranez sorgin haiek emakume askeak zirela eta praktikatzen zituztela sexu librea eta halakoak. Aitzakia bat izan zen sorginkeria. Hilketak guzti haiek modu antolatua eta sistematiko batean egin zituzten.

◆ Trama oso bat asmatu zuten beraz. Zergatik edo zertarako?

Aro Modernoaz ari gara, ez gara ari Erdi Aro superstizioso hartaz, eta Aro Modernoaren hasiera hartan hasi ziren ezartzen oraingo munduaren oinarriak. Inkisizioa salbuespenezko auzitegi politiko bat izan zen, sortu zutena ezabatzeko eskualde, erresuma eta estatu ezberdinetan indarrean ziren berme legalak, adibidez forua, erregearen eta herriaren arteko kontratuzko legea. Momentu jakin batean, Espainiak inbaditu eta okupatu zuen Nafarroa, traban zituen lider sozial, ekonomiko eta politiko asko, baina jabetu zen ez zuela hain erraza haiek paretik kentzen, foruak indarrean zeudelako, eta horregatik, zerbait asmatu beharra izan zuten. Eta asmatu zituzten sekulakoak: euskaldunek besteen odola xurgatzen zutela, besteen bihotzak atera eta kozinatzen zituztela, apo pozoinduek erabiltzen zituztela edabeak egiteko... Eta noski, delituak hain ziren larriak, hain ziren kriminalak euskaldunak, salbuespenezko legeak aplikatu behar zitzaizkiela, foruen gaintetik. Eta salbuespenezko prozedura horretan, akusatuei babes juridikorako eskubidea ukatu zieten, egozten zientena Jainkoari trizioa egitea zelako. Horregatik, foruak nafarrek Nafarroan epaitu behar zirela erraten bazuen ere, auzipetu haiek Logroñora eraman zituzten eta hizkuntza arrotz batean epaitu. 1525. urtean egonkortu zituzten sorgin eta sekta sataniko hitzak ere, gaur horren moderno egiten zaizkigunak. Calahorran antolatua zuten lehenengo

sarekada militarren baitan asmatutakoak dira horiek. Epaiketa haietan akusazioa lanean hasi zen, erranez sorginak zirela epaituak. Gure arbasoek, baina, ukatu zuten dena, ez baitzekiten sorgin izatea zer zen ere, eta orduan, torturapean erranarazi zizkieten egin ez zituztenak eta kantarazi zizkieten beste izen batzuk. Oso gauza moderno dena, bide batez esanda.

◆ Emakume bat ageri da liburuko azalean ispiluari begira, eta sorgindutako bat ari zaio handik begira. Zer adierazi nahi izan duzu?

Erakargarria zaizkit Akerbeltz eta erratz gainetan hegaka dabilzan atsoak, baina hori dena gezurra da, eta orain arteko errepresentazio hori gezurtatu nahi izan dut irudi horrekin. Azaleko irudian, gure arbaso bat ageri da aginte makila eskuan duela. Boterea eta ahalduntzea irudikatu nahi izan ditut makilarekin. Erakutsi nahi izan dut nola ekarri dituzten ispiluz beste aldera gure arbasoak eta nola kendu dieten jende kategoria ere. Torturatu egin zituzten, hizkuntza arrotz batean epaitu zituzten, umiliatu zituzten

eta hiru belaunaldiz zigortu zituzten haien familiak. Are, epaituekin batera, epaiketa prozesuari zegozkion agiri eta froga guztiak ere erre zituzten, masakrearen neurria ezkutatzeko. Gu, hala ere, ispiluz beste aldera gaude oraindik. Ez dugu kontatzen ahal gure iragana, ez dugu narratiba nazionalik. Euskal curriculumak ez du aurrera egiten, ez dugulako agintzen, ez gure hez-

kuntzan eta ez beste deusetan. Mexikon, adibidez, inork ez du hitz egiten arbaso sorginez. Han, oso argi dute Kolonialismo espainiarra ezartzeko bidea izan zela inkisizioa.

◆ Emakume ahaldunduak batean, eta sorginak, ispiluz beste aldean. Sorginen ehiza Europako feminizidio handiena izan zela aipatu zuen Amaia Nausia historialariak gurean. Zer diozu?

Ez nago ados feminizidioaren kontu horrekin. Egia da, Europa osoan bezala, hemen ere emakumeen kontra egin zutela gehiago eta lau errepresaliatutik hiru emakumezkoak izan zirela, baina horrek badu azalpen historikoa. Nafarroa konkistatu zutenean hasi zuten inkisizioa hemen eta 1513an eratu zuten lehenengo auzitegia. Eta orduko agirian jasota dago Joan Labriten alde altxatu zirenen izenak biltzeko agindua [Nafarroako errege ezkontidea (1484-1516), Katalina I.a edo Foixekoa Nafarroako erregina titularrarekin ezkondu zena]. Agindu harekin, Espainiarren zapalketaren kontra ari zirenen izenak biltzeko eskatzen ari ziren; ez ziren doktrina kontutaz ari. Are gehiago, Erromako artzapezpikuak [gerora aita santu izena hartuko zuena] honakoa jaso zuen 1513an Nafarroako errege-erreginen kontra egindako eskumikatzean: izpiritu gaiztoaren eraginez Joan Labrit eta haren emazte Katalina Foixekoa satanen ministro bilakatu zirela. Hor ikusten da garbi boteretik nola asmatu zuten terminologia bat arerio politikari jende kategoria ere kentzeko. Eta hori bera errepikatzen da Amaiurren nahiz erresuma liberatzeko gainerako ahaleginetan

*“Hainbat ikuspuntutatik
iker daiteke gaia.
Lan hipotesi onartezin
bakarra da gure arbasoak
sorginak zirela”*



atxilotu, auzipetu eta zigortu zituztenez: deabruaren indarrak sustatuta jardun zirela. Nafarroa okupatuan, urtero-urtero, ezin konta beste lagun sarraskitu eta erre zituzten mende batez. Baxenabarrenen kasua, beste bat da. Baxenabarre subiranoa zen garai horretan, eta mende horretan, hango errege-erreginak zirelarik agintzen eta forua indarrean zela, ez zen kasu bakar bat ere eman. Beraz horrek erran nahi du sorgin ehiza ezin dela konkistaren logitatik kanpo ulertu.

♦ Emakumeen kontrako jazarpena baino gehiago komunitate oso baten kontrako oldarraldia izan zela alegia.

Bai. Euskal Herria, bestelako antolaketa soziala, judiziala eta politikoa zuen herria, Europan dagoen erresuma intoleranteenaren esku erori zen eta espainolak hemengo jendea diziplinatzearekin obsesionatu ziren. Eta nola diziplinatzen da jendea era klasikoan? Eskolaren bidez edo Armadaren bidez. Emakumezkoek itxita zuten eskolarako bidea, baina Trentoko Kontzilioak [Erreforma protestanteari erantzuteko eta dogma eta sinesmen katoliko indartzeko elizako kargu nagusiek egin zuten batzarra] deliberratu zuelako emazteek itxirik izango zituztela botereguneetarako ate guztiak. Gehienez ere Elizak garbitzeko onartzen zituzten. Armadan sartzeko aukerarik ere ez zuten, eta beraz, ezin zituzten gizonak bezala milizietan diziplinatu. Horregatik asmatu zuten sekta satanikoen kontu hori. Akusazio horren pean hil zituzten emakumeak Nafarroan eta Lapurdin. Eta ez da nik asmatua; dena publikatuta dago.

♦ Espainiak eta Frantziak, beti lagun izan ezta ere, indarrak batu zituzten gure lurretako herritarrak estutzeko, ezta?

Bai, hainbatetan bildu ziren Espainiako inkisidoreak eta Frantziako epaileak, eta espioi sareak ere antolatu zituzten. Leon Aranibar Urdazubiko abadeburu zenak izandako protagonismoak harrituta ninduen ni, esaterako, ikusten nuelako behin eta berriz agertzen zela bere izena sorgin ehizaren inguruko idatzietan, baina agertzen zela baita ere aunitzetan espioitza liburuetan. Espainiako erregearen agente bat zen Aranibar, espioiburu bat, sekulako soldata kobratzen zuena Espainiako estatu kontseilutik. Sare bat zuen harilkatuta mugako herrietan eta ere lana zen erregeari erratea ia nafarrak hasiak ziren matxinadarako prestatzen. Aranibarren agente bat, Agata Arbizu izeneko bat, Paueko gaztelura eraman zuten, eta han jardun zen lanean. Eta inork ez du lotura hori ikertu. Batetik, Aranibar jardun zen inkisizioaren komisario lanetan eta eraman zituen bere herrikide guztiak Logroñora sutara, eta aldi berean, izan zen Espainiako enperadorearen agente bat, eta antolatu zuen Ainhoan bilkura bat. Han batu ziren, batetik, Lapurdiko jauntxoak, eta bestetik, inkisizioaren estamen-

tutik joandako Juan del Valle Alvarado inkisidorea eta baita Bordelelik Frantziako erregeak bidali zuen, Bordeleko auzitegiko ganbara nagusiko presidentea. Frantziako eta Espainiako elite osoa batu zuen ikusteko nola harrapatu ahal zituzten euskal herritarrak

♦ Emakume errebeldea, librea eta pertsonaia sinpatikoa ere bada gaurko iruditerian sorgina. Zugarramurdin bertan ere, Sorginen Leizea eta Sorginen museoa dituzte. Nola daramazue hori?

Ez gara beste inor baino inozoagoak, baina gertatzen zaiguna da hor gauzkatela oraindik ispluaren beste aldean. Beste proiektu batean ere ari naiz egunotan lanean eta gauza franko ari naiz irakurtzen Nafarroako konkistaren inguruan, eta egiazki ikusten dudana da Pamiela argitaletxea eta obstrazismora kondenatu dituzten historialari gutxi batzuk kenduta inor ez dela hemen

kontrapuntua jartzera ausartu. Konkistaren justifikazio exajeratua da dena. Begira, EHUko ikasle talde batek sorginen ehizari buruzko lan bat egin du aurten gure lan hipotesi bera erabilia eta lau bat jaso du. Eta hori Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu dutela lana, baina Euskal Herriko Unibertsitatea ere izenez da euskalduna. Garailearen ikuspegia ezarri da hemen beti eta inor ez da ausartzen mundu akademikitik kontrarik esaten. Hasteko, legeak



zigorra dakarrelako kontrakoa esatera ausartzen denarentzat, Inkisizioaren garaian bezala. Hemen, iritzia zigortzen da gaur eta orain, beldurraren pedagogia erabilia. Eta hemen ari gara iritsi zaizkigun confeti puska txikiak lotu nahian zerbaite berreraikitzeke, daukagun materiala toxikoa delako.

Zugarramurdin, esaterako, ez dugu lortu udaletxean gure liburua aurkezterik. Bi aurkezpen egin ditugu: bata, musikari baten estudioan, eta bestea, pentsu biltegi batean. Alkatea Akelarre plataformakoa da, eta momentuan ez gaitu hartu nahi, baina nik nahi nioke kontatu ondo iruditzen zaidala turismotik bizitzen jarraitu nahi izatea, baina jende asko joaten dela Auschwitzera ere negar egitera. Eta eskatu nahi nioke mesedez ez emateko marmita aurrean jarritako atso hegalaria irudia gehiago. Itzul diezaiegun duintasuna gure arbasoei, zabal dezagun haien izen ona eta konta dezagun zer egin zieten, ahal dugun neurrian, ez baita erraza. Nik esango nuke Zugarramurdiko museoa duin xamarra dela, baina bueltaren bat eman beharko litzaiokeela ikuspegi orokorrago bat emateko. Eta faborez sorginen herria etiketa hori ken diezaioleta Zugarramurdiri. Ala, hemendik urte batzutara Altsasura joan eta terrorismoaren museoa ikusiko al dugu? Botere ilegítimo batek etsai sozial eta politikoa desagerrarazteko asmatutako terminologia geure egin dugu eta ikaragarria da hori.

Hilabete honetan ere lan kolektibo bat egin dute Egur tailerreko hurrek. Akuairelen forma aleatorio desberdinetatik, sormenaren bitartez, ikasle bakoitzak irudi eta objektu desberdinak bilatu behar izan ditu. Orokorrean ikasle guztiek hartu dute parte.



Daguanian bon-bon, ez daguanian egon:
Dagoenean aprobetxatu behar dela adierazteko erabiltzen da.

Udari ongietorria egingo diote Mendaron, San Joan bezperan



Mendaroko gaztelekuak, ludotekak eta udalak antolatuta, udako solstizioa ospatuko dute Mendaron ekainaren 23an, San Joan bezperan, hain zuzen ere. Urteko gaurik motzena izaten da San Joan gaua, eta suaren bueltan ospatzeko ohitura dago. Halaxe egingo dute Mendaron ere. 18:30ean kalejira egingo dute, eta segidan, Aker eta bere segizioa irtengo dira kalera. Iluntzean, 22:30 aldera, hiru su piztuko dituzte, auzoz auzo. Koronabirusaren eraginez, jende pilaketak sahiesteko neurriak hartu dituzte antolatzaileek eta herritarrek gune desberdinetan banatzea da helburua. Herriko Enparantzan, Mendarozabalena eta Azpilgoetan aldi berean piztuko dute sua. Gune bakoitzean ekitaldi bana egingo dute herriko umeei, eta zenbait dantzatuko dituzte suaren bueltan. Ajuriek in uxatuko dituzte txar guztiak. 23:00etan suziriak botako dituzte udaletxetik, eta horrekin bukatuko da ekitaldia.

Robotikako ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute

Datorren ikasturterako robotika ikastaroan izena emateko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak. LH1 eta LH4 bitarteko haurrentzako ikastaroa da, eta besteak beste, robotak, bideo-jokoak edo asmakizun teknologikoak sortzen, diseinatzen, eraikitzen eta programatzen ikasten dute, Lego Wedo, Lego Mindstorms, Makeblock, Fischertechnik, Jimu, Neuron, Microduino, Arduino, Littlebits, Scratch, Kodu, Code, Unity, Tinkercad... bezalako erreminten bitartez. Urriaren 8tik maiatzaren 27ra izango da ikastaroa, barikutan, 17:00etatik 18:30era, IMHn. Elgoibartarrek hilean 36 euroko kuota ordaindu beharko dute, eta Elgoibarren erroldatuta ez daudenentzako prezioa hilean 66 eurokoa izango da. Familia ugariak hilean 10 euro ordainduko dituzte.

Covid-19a dela eta, hainbat neurri hartuko dituzte: neska-mutilek maskara jantzi beharko dute, eta gehienez 15 lagun sartu ahalko dira gela bakoitzean. Hiru gela egokituko dituzte robotikarako, eta gela bakoitzak bere begiralea izango du. Ume bakoitzak ordenagailu bat, robot bat, mahai bat eta aulki bat izango ditu, eta mahai guztien artean segurtasun tartea bermatuko da. Interesatuak lotura honetan eman dezakete izena: <http://bit.ly/robotika-elgoibar>.


'Satorra eta gu' musika emanaldia antolatu dute uztailaren 3rako

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak antolatuta, *Satorra eta gu* musika emanaldia antolatu dute uztailaren 3rako. Edu Iriondo Mungian bizi den elgoibartarraren bigarren lana da *Satorra eta gu* diskoa, baina lan honetan ere ez da bakarririk egon. Taldea bi proiekturako elkartu da: Edu Iriondo hainbat kantaren letra eta doinua prestatzen aritu da, eta Alberto Iriondo (teklatuarekin), Juankar Martin (gitarra) eta Igor Bilbao (baxua) hasieratik egon dira bere aldamenean. Elgoibarko kontzertuan, baina, bateria eta beste ahots batzuk ere izango dira ohotza gainean. Bederatzi lagun etorriko dira guztira. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 5 euroan. Elgoibarko Izarraren bulegoan erosi daitezke sarrerak aurrez, Aita Agirre kulturguneko 3. solairuan. Telefonoz edo emailaz ere erreserbatu daitezke, 943 741626 telefonoan edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidean. Sarrerarik geratzen bada, egunean bertan ere salduko dituzte Herriko Antzokiko txarteldegian. Emanaldia 20:00etan izango da.



200 bat dantzarik hartuko dute parte gaur 'Biraka bizi' dantza jaialdian

Biraka dantza eskolakoek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute gaur, Herriko Antzokian. *Biraka bizi* izena jarri diote aurtengorari, urte gogorra izan arren, gure ondotik joan direnak gogoan izanda bizitza ospatzeko ekitaldia izan nahi duelako. Covid-19a dela eta, publikorik gabe egingo dute jaialdia, eta bideoan grabatuko dute dantzaldia, gero familiek ikus dezaten. Jaialdia ez da urtero modukoa izango, eta jende pilaketak sahiesteko, hiru taldetan banatuko dute dantzaldia. Hasiberriak igoko dira oholtzara lehenengo, eta haiek amaitutakoan eserlekuak desinfektatuko dituzte, dantzari txikiak sartzeko. Gauza bera egingo dute bigarren taldeak amaitzen duenean, eta nagusiek dantzatuko dute azken. 5 eta 20 urte arteko 200 bat dantzarik hartuko dute parte guztira.



Etorkizun hobea irudikatzeko fabulak musikatu zituzten Harkaitz Canok eta Maite Larburuk



Etorkizuna irudikatzeko bi fabulen irakurraldi musikatuak antolatatu ditu Elgoibarko Izarrak ekainerako, Udalaren laguntzarekin. Herenegun izan zen lehena, Harkaitz Cano idazlearekin eta Maite Larburu musikariarekin. Canok Goiener taldearen gaineko fabula irakurri zuen, Larbururen musikak lagunduta. Antolatzaileek "benetan ederra" izan zela esan dute, eta "gustura" geratu zirela egindako esperimentuarekin, bai sortzaileak eta baita jendea ere.

Bigarren irakurraldia ekainaren 30ean izango da. Uxue Alberdi eta Iban Urizar izango dira gonbidatuak. Bi emanaldietarako gonbidapenak aspalditik daude agortuta.

Egur arte eskolako erakusketa



Egur arte tailerreko ikasle gazteek eta helduek urtean zehar egindako lanen erakusketa zabalduko dute gaur Kultur Etxean, eta ekainaren 26ra arte egongo da ikusgai. Besteak beste, zeramikak, labeko esmaltearekin eginiko lanak, margolanak eta marrazkiak jarriko dituzte ikusgai. Asteleheneetik zapatura bisitatu daiteke erakusketa, 18:30etik 20:30era.

'Death cafe' saioa, ekainaren 24an

Almaur elkarteak Death Cafe saioa antolatu du ekainaren 24rako. Antolatzaileek azaldu dute heriotzaz hitz egiteko saioa izango dela, baina ez dela doluan laguntzeko topaketa izango. Kultur Etxean izango da, 18:30etik 20:30era, eta parte hartzeko izena eman behar da 627 117 819 (Iñaki) telefonora deituta.



85 neskek hartu zuten parte futbol campusean

Neskek futbolera erakartzeko Futbol Campusa egin zuen C.D. Elgoibarrek joan den zapatuan, Mintxetan, eta agerian geratu zen badela futbolera zaletasuna herriko neska gazteen artean, 9 eta 14 urte bitarteko 85 neskek hartu baitzuten parte. C.D. Elgoibarreko eta Realeko teknikariek –Gorka Alvarez, Aintzane Encinas eta Iosu Diazek– gidatu zuten futbol campusa. Guztien laguntzarekin eta lanarekin emakumezkoen futbola indartzen jarraituko dutela azaldu dute futbol taldeko arduradunek. Realeko ordezkariak ere pozik daude futbol campusak eman zuenarekin. “Plazer bat izan zen larunbatean lan talde izugarri honekin aritzea eta ikaragarria nesken aldetik jasotako erantzuna. Eguneroko lanak bere uzta dakar eta garbi isladatzen da zuenean”, adierazi du Gorka Alvarez Realeko teknikariak.

Bi elgoibartarrek hartu dute parte 100 kilometroko Espainiako Txapelketan

Espainiako 100 eta 50 kilometroko Txapelketak jokatu zituzten ekainaren 12an, Santanderren, eta bi elgoibartarrek hartu zuten parte distantzia luzeeneko lasterketan, Jose Luis Diez Txeluk eta Edu Uribek. Lander Azpiazu, berriz, 50 kilometroko lasterketan lehiatu zen. 140 lagunek hartu zuten parte 100 kilometroko proban, eta 65 saltakari-rik lortu zuten proba amaitzea, bukatzea bera lorpena baita, eta are gehiago egin zuen beroarekin. Antolatzaileek La Vaguada parkean prestatu zuten 5 kilometroko ibilbidean lehiatu ziren antixikariak. Hogei itzuli eman behar zizkieten zirkuituari. Morkaiko taldea ordezkatu zuen Jose Luis Diez Txeluk hamar ordu eta erdi eman zituen saltaka 100 kilometroak osatzeko, eta 42. postuan sailkatu zen, 10:30:11ko denborarekin. Korrikalariek 13 orduko denbora-muga zuten proba amaitzeko eta horrek, “bai ala bai” erritmo bat ezartzera behartzen zituela argitu du Txeluk, ez da “martxa bat”, alegia. Edu Uribe elgoibartarrak ere hartu zuen parte 100 kilometroko proban, baina denbora muga gaingitu zuen 90 kilometro eginak zituenean, eta gelditzera behartu zuten antolatzaileek. Uribek azaldu du beroak asko baldintzatu zuela. Duela bi urte ere hartu zuen parte Santanderren jokatzen den lasterketan, eta 12 ordu eta 26 minutuan bukatzea lortu zuen orduko hartan. Lander Azpiazuk 50 kilometroko proban hartu zuen parte, eta 56. postuan sailkatu zen, 03:59:49ko denbora eginda.



Apostua: Odria vs De La Arada

Mutrikuko portua, Elgoibarko plaza eta Karakate lotuko dituen erronka jokatuko dute Iker Odriak eta Antxon De La Aradak, ekainaren 26an (10:15). LaRoita kuadrillako lagunak dira, kirolzaleak biak. Mutrikun hasiko dute erronka, portuan egingo duten 600 metroko igeriketa saioarekin. Bizikleta hartuko dute gero, eta Kalbarioko gainera igo ostean, Kalegoen plazan amaituko dute bizikletako zatia. Plazatik Karakate gaineraino igo beharko dute, bakoitzak nahi duen lekutik. Lagunartean sortutako erronka dela azaldu du Antxon De La Aradak. “Iker [Odria] oso ondo moldatzen da bizikletan nahiz mendian korrika, eta halako erronka batean ni edo bera arituko ginen hobeto eztaba-dan hasi ziren kuadrillako lagunak, eta hortik irten zen erronka hau, orain dela pare bat hilabete inguru. Eguna hurbildu ahala handitzen joan da hau dena, eta herriko paretetan kartelak ere pegatu dituzte kuadrillakoek, sare sozialetan kontuak sortu eta apostuak ere badabilta egiten, ez bakarrik gure kuadrillakoen artean, beste kuadrilla batzuetara ere zabaldu baita erronkak sortu duen ikusmina. Politia izango da”, esan du.



Hodei Ezpeleta mendaroarrak jantzi du Urrezko Aizkolarien banakako txapela

Hodei Ezpeletak (Mendaro, 1999) bere ibilbide laburreko garaipenik handiena eskuratu zuen domekan Lekunberrin, Urrezko Banakako Aizkolarien Txapelketa irabazita, aizkora munduko garrantzitsuenetarikoa. Estreina edizioa 1998an jokatu zuten, eta Joxe Miel Peñagarikano gailendu zen lehen ekitaldi hartan. Ondoren, aizkora munduko izen handiak ageri dira txapelketa honen palmaresean, besteak beste, Joxe Mari Olasagasti, Donato Larretxea, Floren Nazabal edo Iker Vicente. Orain, Ezpeleta ere bada urrezko aizkolaria. Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan jokatu zuten finala eta estreinakoz publikoa batu zen harmailetan, 200 lagun (%40ko edukiera), hain justu ere. Lehian aritu ziren hiru aizkolariek hiru ariketa egin zituzten. Horietako bitan Patxi Mindegia nafarra izan zen azkarrena eta 35 segundoko aldearekin hasi zuen hirugarren eta azken ariketa, baina atzekoz aurrera eginez aurrea hartu zion Ezpeletak, eta bera izan zen lanak amaitzen azkarrena. Azken ariketa horretan 60 ontzako lau egur moztu behar zituzten finalean lehiatu ziren hiru aizkolariek, eta indar erakustaldia eman zuen aizkolaria mendaroarrak. Indarrez hustuta amaitu zuen saioa, asko sufrituta. Hunkigarria izan zen aitak, Ernesto Ezpeleta *Bihurriik* lanak amaitu berritan semeari eman zion besarkada. Azken ariketarari, aitak harmailetatik eskatu moduan, ausardiaz egin ziola aurre azaldu zuen Ezpeletak, "hil ala bizi". Nekatuta bukatu arren, ahaleginak eta nekeak merezi zutela esan zuen. Ezpeleta gazteak Mendaro, Elgoibar eta Eibarko lagunak izan zituen gogoan garaipenean: "Nire alboan izan ditudanak, beraiek badakite zein diren. Eta, batez ere, txapel hau eskaintzen diot nire lagun handia den Dioni Cortinaren emazteari, Karmele Etxaberi, eta nire laguna izan den Aitor Gandiagari", adierazi zuen txapeldunak, hunkituta.

Arg.: Patxi Cascante



Herri kirol ezberdinak probatu dituzte Mendaroko umeei, profesionalen eskutik



Herri kirolen eguna antolatu zuen Mendaroko Udalak joan zen ekainaren 12an, Ernesto Ezpeleta *Bihurriekin* elkarlanean eta Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin. HH5etik LH6ra arteko umeei zuzendutako ekimena izan zen eta gozatu ederra hartu zuten Goñati pilotalekuan batu ziren haurrek. Txinga eroatea, sokatira, zaku lasterketak edo harri jasotzea moduko herri kirolak probatzeko aukera izan zuten, eta luxuzko irakasleak izan zituzten, Ernesto eta Hodei Ezpeleta aita-emeak. (argazki gehiago: barren.eus)

Imanol Alvarez, Frantziako txirrindulari onenen parean

Ekainaren 12tik 13ra bitartean jokatu zuten Beaujolais Tourra, goi mailako txirrindulariak batzen dituen lasterketa. Frantzia hego-ekialdeko eskualdea den Rhone-Alpesen jokatu den proba hau, Alpeen inguruan eta Lyon hiriburutik gertu. Irteera hartu zuten 23 taldeetatik 21 frantziarrak ziren, bat suitzarra eta beste bat Eiser Hirumet txirrindulari talde euskalduna, Imanol Alvarez elgoibartarraren taldea. Hain justu, berak eskuratu zuen posturik onena taldekideen artean: sailkapen nagusiko 12. postuan sailkatu zen, eta laugarren egin zuen 23 urtez azpikoetan, Frantziako txirrindulari gazteenekin parez pare lehiatzeko gai dela erakutsiz.



Asteburu berean, Mendaroko txirrindulari bat ere lehiatu zen Frantziako errepideetan. Elgoibarko Laboral Kutxa taldeko Beñat Fernandezek Bocage et de L'Erneeko Tourrean hartu zuen parte Gipuzkoako selekzioarekin.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Ospitaleetan ere zaintza lanak egiteko prest nago.

☎ 631 465 603

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizez, orduka.

☎ 605 527 278

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan jarduteko prest nago.

☎ 643 071 900

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia eta titulazioa ditut.

☎ 662 460 266

Etxeko lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 655 094 780

Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko, etxeko langile moduan.

☎ 643 584 198

Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 685 731 164

Emakume euskalduna, adinekoak zaintzeko prest. Erizain laguntzaile titulua daukat. Esperientzia eta erreferentzia onak.

☎ 660 511 781

Neska euskalduna eskaintzen da ekainetik abuztura haurrak zaintzeko. LH-n klase partikularrak ere emango nituzke (Elgoibarren edo Mendaron). Berehala hasteko aukera, eta ordutegi malgua.

☎ 630 915 031

PARTIKULARRAK.....

Skate klaseak ematen ditut, hasiberrientzat eta hobetu nahi dutenentzat.

☎ 672 183 313 (Danel Iriondo)

ETXEBIZITZA.....

Pisua alokatzen dut San Roken. Bi logela, bi komun eta berogailu zentrala ditu. Etxe atsegina eta polita da.

☎ 660 042 159 (arratsaldez)

Etxe bat hartuko nuke alokairuan.

☎ 660 458 756

BESTELAKOAK.....

Erlojua galdu dut Herriko Antzokitik Lerun alderako bidean. Pultsera beltza dauka eta digitala da. Norbaitek aurkitu badu, deitu dezala, mesedez.

☎ 676 393 351

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€.

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Auzakako Kontakaria</p>  <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Zor duen hileko kuota ari gatzazkio erreklamatzeko gure komunitatean lokal jabe bati. Hainbat aldiz hitz egin ostean, adostasun batera iritsi gara bi aldeak, eta zordunak agindu du urtebeteko epean ordainduko duela zor duen diru kopuru hori. Jakin nahiko nuke komunitateak eskumenik ote duen zordunari zor duen diru guztia ordainketa bakarrean ordainarazteko. Izan ere, etxejabe batzuek ez daude konforme ordainketa horrenbeste atzeratzearekin.</p> <p>Komunitateak aukera dauka zor osoa aldi bakar batean ordaintzea exijitzeko, beti ere, bi aldeek ez baldin badute ordainketa sistema jakin bat adostu. Dena den, komunitate horretako jabe guztiek ez dute zertan onetsi bi aldeek adostutako ordainketa sistema. Akordioek helburu bakarra dute: epaiketara jo beharra saihestea zordunari kuota ordain dezan exijitzeko edo hasitako auzibidea amaitzeko. Legeak dio komunitateko gastuak jabeekideen batzarrean adostutako moduan eta epeetan ordaindu behar direla. Bestela, presidenteak edo administratzaileak epaiketara jotzeko aukera izango luke, beti ere jabeekideen batzarrak hala adostuz gero.</p> <p>AHOLKUA: zor duen guztia ordaintzeko exijitu diezaike etxejabeen batzarrak zordunari, eta hark ordainduko ez balu, batzarrak aukera izango luke epaitegira jotzeko eta auzibidea hasteko.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira
BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.es e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Mikel!**
Gaur 3 urte! Oso ondo pasa zure egunean! Muxu handi bat etxeke guztion partez.



Handitzen handitzen... bazoaz handitzen! Igan-dean 12 urte! Zorionak, **Markel!**
Ondo pasa!. Eta tia Maria Luisa, zuk ere igandean urtebete gehiago.



Muxu potolo bat Zorionak, **Aimar,** astear-tean 10 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia-koen, eta bere-ziki, Danelen partez.



Zorionak, **Aian,** bihar 2 urte be-teko dituzulako. Muxu handi bat etxeke guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

ZERBITZU BERRIA!

Udarako arropa konpontzea behar duzu?
Ekarri eta zure neurrira utziko dizugu.
Edozein ehun konpondu ahal izateko makinak ditugu.
Barrenak hartu, arropak estutu edo zabaldu,
kremailerak konpondu edo jarri...
Mota guztietako arropetan egiten dugu lan, alkandorak,
galtzak, soinekoak, jakak, mailotak...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eu webgunean**

**943 743 704
688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eu
BARREN Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

**FAGOR
3FE-8212
ARROPA
GARBIGAILUA**

349 €

A+ D

- Max Load funtzioa: LCD pantailak karga maximoa edo pisua kg-tan adierazten du. • Segurutasun-blokeoa.
- Garbitzeko 10 programa. • Bakeroentzako programa.
- Kotoi programa. • AquaBall garbiketa eraginkorragoa izan dadin garbigarria galtzea eragozten duen balbula bat da.
- 8 kg karga • 1.200 b/min

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

18 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Elgoibarren. Txanda hartzeko 623 328 408 telefonora deitu behar da.

18:30 Egur arte tailerreko ikasleen lane-kin egindako erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Biraka dantza taldearen kurso bukaerako jaialdia. Herriko Antzokian.

23 EGUAZTENA

22:30 Suak piztuko dituzte Mendaroko hiru auzotan eta suaren bueltan dantza egingo dute herriko haurrek. Segidan su artifizialak, udaletxetik

24 EGUENA

18:30 'Death cafe'. Heriotzaz hitz egiteko bilkura. Kultur Etxean. Izena emateko 627 117 819 (Iñaki) telefonora deitu behar da.

19:00 Aurkezpena: 'Sugarren mende'. Asisko Urmeneta eta Helena Xurio. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian. Elgoibarko Izarrak, Udalak, AEK-k eta Debabe Udal Euskaltegiak antolatuta.

25 BARIKUA

19:00 Elgoibar BHI institutuko diploma banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

20:00 Elkarretaratzea, Kalegoen plazan, 'Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Presoak Euskal Herrira. Josu Lariz etxera' lemapean.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

18 BARIKAKUA	19 ZAPATUA	20 DOMEKA	21 ASTELEHENA	22 MARTITZENA	23 EGUAZTENA	24 EGUENA	25 BARIKAKUA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia
* Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gaez: 22:00-09:00 Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar) 943 201 912	



Paco Egea Garcia

2021eko ekainaren 11n hil zen,
70 urte zituela.

Gero arte, Paco

Zure lagunak




Maria Uribetxeberria Arzuaga

"Olasarra"

2021eko ekainaren 16an hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.





Felisa Etxabe Egibar

2021eko ekainaren 13an hil zen, 103 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Maitasun handiz laga gaituzu
eta guk maitasunez gainezka
gogoratuko zaitugu.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Margarita Aranberri Mendizabal

2020ko ekainaren 17an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 20an,
11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Udaberriko hostaizka
beti ikusgarri
zuzenki, baiña goxo
famili zaindari
Manolokin batera
duoan kantari
bihotzian zaittugu,
amama Margari.***



V. URTEURRENA

Mikel de Pablo Cid

2016ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela.
Haren oroimenez, V. urteurreneko meza izango da, domekan,
uztailaren 20an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-
parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Zure argia eta zure maitasuna
beti daude gure bihotzean.***

Etxekoak



GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,

**European
desberdintasun
maila txikienetariko**
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Guipúzcoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es Futuro

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa